

## GUREAN

### DANBORRADA: 50. URTEURRENA

Aurten 50. urteurrena ospatuko dugu ikastolan. 1976ko urtarrilean atera zen Herri Ametsa ikastola Donostiako Haur Danborradan. Gu izan ginen lehen ikastola bertan parte hartzen eta gogoz eta ilusioz bete genuen Misericordia konpainiak utzi zigun lekua. Hurrengo urtean, San Sebastian bezperan, ikurriña legeztatu zuten eta norbaitek gordelekutik ikurriña atera eta gure haur konpainiak haren atzetik desfilatu zuen harro, ikusleen txalo zaparra beroa jasota. Lehendabiziko urteetan hirurogei partehatzaile inguru egon ziren eta gaur egun ehunera iristea lortu dugu. GORA SAN SEBASTIAN EGUNA!



## GURE INGURUAN

### SANTA LUTZI FERIA

**NOIZ: ABENDUAK 13**  
**NON: ZUMARRAGA ETA URRETXU**

Santa Lutzi azoka Erdi Aroko nekazaritza eta abeltzaintza-azoka garrantzitsua da, eta Urretxun eta Zumarragan egiten da. Feria guneak erabat lotzen ditu bi herriak. Era guztietako produktuak aurki daitezke eta milaka bisitari hurbiltzen dira urtero lehenengo orduetatik kaleak betez.

Gainera, ohiko sariketez gain, ez dira faltako, ardo azoka, musika, herri kirolak, pilota partiduak, argazki rallya eta artzain txakur erakustaldiak.



## BAZENEKITEN?



### LEHEN SOROSPENEN IKASTAROA EGIN DUTELA IRAKASLEEK?

Aste honetan, gure bi ikasleren aitak ikastaroa eman die ikastolako ikasleei. Lehen sorospenen oinarritzko jakintzak era teorikoan zein praktikoan bereganatu dituzte, etorkizunean oso erabilgarriak izango zaizkienak.